

GETXOKO ONDAREA ETA TOPONIMIA

Unitate didaktikoak
BIGARREN HEZKUNTZA

HEZEGUNEAK





Fadura

Latinetik datorren euskarazko hitza da; padura edo fadura. "Leku urtsua" izateaz gain, Bizkaian "uholdeen urak estaltzen duen ingurua" adierazten du. Hori dela eta, Getxon *ibar* eta *baratz* hitzen kideztat erabili izan zen. Hitz generikoa ere bada, baina izen propio bihurtuta. Getxon honen adibide ugari daude: Bolue, Aixerrota, Baserri, Abra...



Gaur egun Fadura izena bertako kiroldegia izendatzeko erabiltzen badugu ere, antzina izendaturiko ingurua askoz ere zabalagoa zen. 1916. urte inguruan Udalak inguruko lurra erosi zuen parkea sortzeko asmoz. Estadioaz gain, lakutxo bat ere eraiki nahi zuten. Hainbat ekintza izan ziren bertan Jolaseta Klubak eta Udalak antolatuta: futbola, poloa eta zaldi-erakustaldiak. Kiroldegia 1971n inauguratu zen.

Gobela

Gaur egun izen honek ibaia besterik izendatzen ez badu ere, antzina inguru zabala izendatzeko erabiltzen zen. Romon dagoen kiroldegiak ere Gobela izena du.

Gobela ibaia Getxoko ardatzetako bat izan da, soroak ureztatzeaz gain, errotak mugitzeko indarra ematen baitzuen.

Ibaiaren bidea behin baino gehiagotan moldatu behar izan zen, azkenik berriro antzinako bidera itzuli zen arte. Denbora-tarte horretan bere mendekua hartzen zuen noizean behin, herria ur azpian utziz.

Gaur egun ere La Bola inguruan ur apur bat itsasoratzen da, gainerakoa Areta azpitik, Lamiakorantz desbideratu, Udondo errekarekin bat egin eta Leioan ibairatzen da.



Arzubiaga

Izenaren jatorrizko osagaiak argiak dira, *ar-* (harria), *zubi* eta *-aga* atzizkia. Izenek, historiaren aztarnak uzten dizkigute. Izenak berak dioen bezala, hasieran zubiaren izena izan zen eta geroago inguruan eraikitako etxeak hartu zuen, deitura ere bihurtu zena. Izen zahar honek argi erakusten du lehenago zurezko zubiak eraikitzen zirela Getxon eta agian hau izan zela harrizko lehenengoa.

Etxe bakarra zenean *Arzubiaga* zuen izena, baina inguruan etxe gehiago eraikitzean bereizi beharra egon zen eta izen hau zuten hiru etxe sortu ziren: *Arzubiagagoikoa*, *Arzubiagabekoa* eta *Arzubiagajauregi*. Azken hori autobidea egitean betiko desagertu zen.



ARIKETAK:


1. Fadura gaur egun kiroldegi moduan ezagutzen dugu, baina lehen zer egiten zuten bertan getxoztarrek?
2. Non itsasoratu eta ibairatzen da Gobela erreka? Horretarako lortu inguruko mapa bat eta marraztu ibilbidea. Irakasleari eskatu.
3. Bilatu Interneten Gobela ibaiari buruzko informazioa. Azken uholdeak, oraingo obrak...
4. Arzubiaga izenak istorio bat dauka gordeta. Hitzen osagaiak kontuan hartuz idatzi leku izen horri buruz dakizuna.

ERROTAK ETA BERE INGURUAK



Errota hitza latinetik dator, "rotam" hitzetik, eta gurpila esan nahi du.

Hemengo ohiko errotak ibaikoak dira. Gure lurra oso euritsua denez, errekek aprobatxatu ohi ditugu garia eta artoa ehotzeko. Gure eskualdean asko egon dira, ibaia txikia izanik ere. Hor ikusten da aktibitate horien garrantzia eta errekurtsio naturalaren ustiapenaren beharra.



Bolua (Bolue)

Bolu hitza ere latinetik dator eta "errote" esan nahi du, nahiz eta gaur egun ez den errota izendatzeko erabiltzen. Hitz horrekin sortutako beste hitz batzuk aurki ditzakegu inguruan: *Bolunburu* eta *Bolunzarreta*.

Martiartutik datorren errekarari deitzen zaio, eta Bolunzarreta eta Kukullagako erreka izenak ere baditu. *Bolue* izena Erandion dagoen errotarena da. Bolunzarreta errotatik pasatutakoan, azken etxe horren izena ere hartzen du erreka honek. Beste batzuentzat goragoko zatia Kukullagako erreka da, Berangoko Kukullaga etxearengatik.

Ohikoa da errekek izenik ez izatea eta besterik gabe "erreka" deitu edo gorago dagoen inguru, etxe edo herrien izena jasotzea. Salbuespena ibai handienak izaten dira.

Bolunzarreta (Errotabarri)

Errota honek bi izen ditu, Bolunzarreta eta Errotabarri. Bi izen horien esangura lehian dago.

Bolunzarreta toponimoaren osagaiak *bolu* (errota), *zahar* eta *-eta* atzizkia dira. Bolunzarreta, etxea ez ezik, bertako erreka eta mendigaina ere bada.

Errotabarriren kasuan, berriz, kontrako esanahia daukagu. Badirudi *Bolunzarreta* izenak aurreko errotei egiten diela erreferentzia eta *Errotabarri*, ostera, egungo etxeari deritzo.



Larrañazubi, Bolunzarretako zubia

Itxura guztiaren arabera, leku-izen honen osagaiak *larrain* eta *zubi* dira, baina ez dago argi. Lehenagoko aipuetan *Naranjazubi* eta *Laranjazubi* ageri dira. Horiek ere gutxitan ageri dira, baina aipuak ikusita pentsa genezake oinarrian laranja fruitu-arbola dugula.

1918an Bolue errekek uholdeak eragiten zituen, euria egiten zuenean ezinezkoa zen zubia busti gabe zeharkatzea. Azkenean bidea alde bietan igo zuten, urak gora egitean ez estaltzeko, eta kale bihurtu zuten. Larrañazubi izenaz gain, ahoz Bolunzarretako zubi deitu izan da.

Errotazarra

Larrañazubiko eskolaren ondoan, gaur egungo futbol-zelaiaren goiko aldean egon zen etxea. Hormak zutik daude, baina sasiek janda eta ingurua zeharo aldatuta dago. Errotaetxeren kasuan bezala, etxea bera ez zen errota izan, altuegi egoteaz gain, ez baitu inolako aztarnarik.



Etxearen benetako izena Ondategi zen eta Errotazar izena hartu zuen bertara bizitzera joan zirelako Leioako Errotazarrekoak.

ARIKETAK:

1. Idatzi errota izendatzeko ezagutzen dituzun hitz guztiak. Horretarako hiztegiak edota Internet erabili dezakezu.
2. Marraztu eta izendatu *Bolua* errekek bere ibilbidean zehar hartzen dituen izenak. Horretarako inguruko mapa bat behar izango duzu. Irakasleari eskatu.
3. *Bolu-* hasiera duten beste leku batzuk ezagutzen dituzu? Izendatu.
4. Azaldu *Bolunzarreta*, *Errotabbarri* eta *Errotazar* toponimoen osagaiak.
5. Zer esan nahi du *Larrain* hitzak?

BASERRI



Baserri

Auzo honetan Bolunzarreta eta Ibarrekoerrota izeneko errota eta Getxoko zabortegia izan dira. Inguruan etxe gutxi egon da eta, batez ere, getxoztarren abereak bazkatzeko lurak izan ziren.

Santa Koloma

Izena latineko "columba" izenetik dator eta *usoa* esan nahi du.

Ibarrekoerrota baserriaren ondoan dagoen baseliza da. Dirudienez, baseliza Errotaetxe baserriarena da eta hori dela eta, pentsatu behar dugu jabetza bat osatzen zutela baserriak, baselizak eta beheko errota.



Ahozko tradizioak dioenez, leku horretan etxeakoandre boteretsu eta misteriotsu bat agertzen zen. Esaten dute usoei deitutakoan, lurretik ura ateratzen zela. Horregatik etortzen omen ziren getxoztarrak iturburu honetara lehorte handiko garaietan.

Beste kondaira batek dio getxoztar aberats batek baseliza beste leku batean eraiki nahi izan zuela. Goizean eraikitakoa, misteriotsuki, gauz desegin egiten zela eta materialak iturburua zegoen lekuan agertzen zirela. Egunero gauza bera gertatzen zen. Azkenean gizon aberatsak, baseliza, harriak goizean agertzen ziren lekuan eraikitzea erabaki zuen, gaur egun baseliza dagoen lekuan, alegia.

Kontrasola

Mendimaldaren izena da. Bizkaian hitz arrunta da nahiz eta gaztelaniatik hartutako hitza izan.

Eguzkira begira dauden lur-sailen izena *eguzkitza* izan ohi da euskaraz eta eguzkira begira ez daudenena, *ospela*, *kontrasola*.

Errotaetxe

Izenak kontrakoa dirudien arren, ez da sekula errota izan, baina badirudi beheko aldean dagoen *Ibarrekoerrotari* dagoela loturik.



Ermita gainean dagoen etxea da. Itsasaldeko Euskal Herrian ohikoena da errota etxea ere izatea, baina batzuetan etxeak erreketatik urrun eraikitzen ziren leku babestuagoetan eta nekazaritzarako hobeak ziren lekuetan, kasu honetan bezala.

Ibarrekoerrota

Lehenengo ibilbidean ikusi dugun moduan, *ibarra* hitz arrunta da, eta bi adiera nagusi ditu; harana eta zaldua. Izenak dioten bezala, ibarrean dagoen errota dugu.

Leku zabalean kokatuta dago, Santa Koloma ermitapean. Oso ondo kontserbatuta dago; oraindik ikus daitezke belardian ubidea eta urtegia. Beheko partean, errotape edo estolda dago, bere lana egin ondoren ura ibaira bidaltzeko.



Etxearen ondoan, irina ehotzeko bi errota eta ogia egiteko labea zeuden. Azken erabilera duela urte gutxi egin da (1960. urtera arte), gero egiturak aldatu eta horrela etxebizitza hutsa bihurtu da.


Kanteragan (Kanteragane)

Bizkaian arrunta den *kantara* (harrobi) eta *-gan* (gaina) hitzez osatuta dago. *Kantara* hitzaren ordeaz erdarazko kantera dugu hemen.

Baso honetan zegoen Getxoko zabor-biltegia 2008an itxi zuten arte.

ARIKETAK:

1. Gustatzen zaizkizu kondairak? Ezagutzen duzu Santa Koloma bezalako beste kondairarik? Asmatu eta idatzi horrelako kondaira bat, zure herriko leku batean oinarrituta.
2. Azaldu Errotaetxe eta Ibarrekoerrota leku-izenen osagaiak.
3. Begiratu arretaz irudia. Azalduko zenuke zein den gertatzen den prozesua? Jarri izenburua irudiari.



4. ZUHAITZAK. Ibilbidean bueltatxo bat emateko aukera baduzu, zuhaitz asko daudela konturatuko zara. Hartu zuhaitz mota bakoitzetik hosto bat, etxean sikatu eta eraman klasera. Hostoekin album bat egingo duzu. Hostoak identifikatzeko eskatu laguntza irakasleari.